

Ordizian, **2012ko ekainaren 28an**, UDALBATZA elkartu da UDALETXEKO BILKURA-ARETOAN **OHIKO BILERA** egiteko. Bertan izan dira honako hauek:

**BERTARATUAK:**

**BATZORDEBURUA:** Igor Eguren Izagirre jauna.

**BERTARATUTAKO ZINEGOTZIAK:**

Belén Maiza Urrestarazu andrea	BILDU taldea
Izaro Intsausti Zinkunegi andrea.	BILDU taldea
Juan Mari Gereñu Aldasoro jauna	BILDU taldea
Eurne Gutierrez Jauregi andrea	BILDU taldea
Imanol Iturrioz Lauzirika jauna	BILDU taldea
Iban Asenjo Garde jauna	BILDU taldea
Jose Miguel Santamaría Ezeiza jauna	PNV taldea
Judith Otegi Lopez de Murillas andrea	PNV taldea
Jose Ignacio Iturrioz Gotor jauna	PNV taldea
Arantzazu Garin Garmendia andrea	PNV taldea
Bittor Bolinaga Alzelai jauna	PNV taldea
Iñaki Dubreuil Churruca jauna	PSE/EE (PSOE) taldea

**BERTARATU EZ ZIREN ZINEGOTZIAK :**

**IDAZKARIA:**

Martin Iparragirre Mujika jn.

**KONTUHARTZAILEA:**

Jose Luis Aramburu Otegi jauna

**ITZULTZAILEA:**

Maialen Moreno Zubeldia andrea

**BERTARATUAK ETA EZIN ETORRIAK**

## **EGUNEKO GAIAK**

### **EGUNEKO GAIEN ZERRENDA:**

1.- 2012ko maiatzaren 31an egindako Osoko Bilkurako akta onartzea.	3.orr.
2.- BILDU taldeak aurkeztutako mozioa hondakinen bilketaren inguruan.	3.orr.
3.- EAJ/PNV taldeak eskualdeko enplegu planaren inguruan aurkeztutako mozioa.	4.orr.
4.- 2011ko kontu orokorrak onartzea.	7.orr.
5.- Alkatetza Dekretu bidez onartutako kreditu aldaketen berri ematea.	8.orr.
6.- Kreditu-transferentzien espedientea.	10.orr.
7.- Egoera ekonomiko eta finantziarioaren berri ematea.	13.orr.
8.- Obra handien eta obra txikien delegazioak bateratzea.	15.orr.
9.- Alkatetzaren Dekretua baliozkotzea Aita Urdaneta 10ean alokairuko etxebizitzak esleitzeko prozeduran.	16.orr.

### **PRESAZKO BIDETIK SARTUTAKO GAIAK:**

#### **GORABEHERAK**

.- Jende ugari etorri da bilerara.

#### **GALDE-ESKEAK**

#### **ORDUTEGIA**

**HASIERA ORDUA: 19.00ak.**

**AMAIERA ORDUA: 20.15ak.**



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren lehenengo puntuaren berri eman du:

**1.- 2012ko maiatzaren 31an egindako ohiko bileraren akta onartzea.**

Proposamena

**2012ko maiatzaren 31an ohiko deialdian egindako bileraren akta-zirriborroa onartzea.**

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: Soila.

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Santamaria jn

Adierazi du akats hau dagoela erderazko bertsioko 4.puntuan: Aldeko Botuak: 8 (PNV 7) jartzen duen lekuan 8(BILDU 7) jarri behar du.

Dubreuil jn

Nafarroaren konkista puntuari dagokionez (11.puntua), adierazi du berak ez zuela aurkako botorik eman, baizik eta ez zuela bozketan parte hartu.

Zuzenketa hauek egin eta gero, akta aho batez onartu da.

Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 13 (BILDU 7, EAJ/PNV 5,PSE-EE (PSOE)1)

Kontrako botoak: 0

Abstentzia: 0.

**Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.**



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendako 2. puntuaren berri eman du eta Asenjo jaunari hitza emanez, honek mozioaren sarrera irakurri du. Ondoren, Alkate jaunak hartu du hitza berriro eta onarpenerako puntuak irakurri ditu:

## **2.- BILDU taldeak aurkeztutako mozioa hondakinen bilketaren inguruan**

### Proposamena

#### Ondo egitera goaz

Hondakinen kudeaketa-ereduaren norabidea une itxaropentsuan dago Gipuzkoan, Usurbilgo, Hernaniko, Oiartzungo eta Antzuolako atez ateko bilketak bide berria zabaldu duelako, eta herrialdeko 34 udalek eredu eraginkorraren aldeko konpromisoa azaldu dutelako, besteak beste. Eztabaida soziala eta instituzionala ere oraintxe gorpuztu dira.

Horregatik guztiagatik, honako hau adierazi nahi diegu ordiziarrei:

1. Ordiziarren eta gipuzkoarren osasuna da lehenesten dugun irizpidea gaiaren aterabidea zedarritzeko, beste edozein irizpideren gainetik. Osasuna lehenesteak, ordea, ez du esan nahi gainerako irizpideak kontutan hartzen ez ditugunik, hala nola, ingurumena, ekonomia, lanpostuak, e.a.
2. Bat egiten dugu zaborteziak gainditzeko konpromisoan, legeek eta zuzentarauek ondo jasotzen duten bezala.
3. Bat egiten dugu errausketa gure asmo eta ekinbideetatik baztertzeke, eta hondakinen kudeaketa beste balore, teknologia eta prozedura batzuen bidez bideratzeko.
4. Bat egiten dugu Gipuzkoa osorako “zero zabor” programa zabala ezarri eta garatzeko beharrea. Gipuzkoarako zero zabor programak modu egokian eta nahikoan konbinatu beharko ditu bilketa selektibo onena eta konpostajea, bi alderdi hauek osatzen baitute hondakinen arazoa konpontzeko soluziobideen ardatza. Horrek esan nahi du konpostaje-azpiegitura egokia antolatu behar dela.
5. Zentzu horretan, ontzat jotzen ditugu organikoa ahalik eta gehien jasotzen duten sistemak, nabarmenduz Usurbil, Hernani, Oiartzun eta Antzuolan ezarri duten atez ateko sistema lau arrazoi nagusi hauengatik:
  - a. Sistemarik eraginkorrena da: bilketa selektiboa %85ra iristen da, eta inpropioen kopurua marginala da. Ondorioz, konpostaren kalitatea ere ezinhobea da.
  - b. Emaizak berehalakoak dira: Usurbil %76ra iritsi zen lehenengo 4 asteetan.
  - c. Hondakinen gaikako bilketa-sistema merkeena da.
  - d. Lanpostuak sortzen ditu. Gipuzkoan 477 lanpostu berri sortuko lituzke, egungo lanpostuez gain.

Ordiziarrok hondakinekin arazoa dugu, baina baita konponbidea ere. Guk Gipuzkoa garbia nahi dugu. Horregatik, eta Ordizian gauzak ongi egiten dakigulako, arazoari muinetik helduko diogu.

Hau nola, udalbatzak zera onartzen du:

- 1.- Ordiziako Udalak ahalik eta hondakin gutxien sortzeko azterketa abiatuko du Sasietako Mankomunitatearekin.**
- 2.- Ordiziako Udalak Mankomunitatearekin batera adostuko du konpostatze kanpaina zabala egitea herriko familien artean.**
- 3.- Ordiziako Udalak ahalik eta gehien birziklatze aldera, emaitza onenak lortzen dituen hiri hondakinen bilketaren alde egiteko konpromezua hartzen du, eta %80ko birziklatze maila lortzen ari den sistema bakarra atez ateko bilketa da gaur egun.**
- 4.- Udalak etengabeko urratsak emango ditu Ordizia zero zabor lurraldea bihurtzeko bidean.**
- 5.- Hau guztia burutzeko, Sasietako Mankomunitatearekin lan-batzorde bat osatzeko eskaera egingo du.**

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: Soila.

#### Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

#### Santamaria in

Esan du alderdi bezala beste proposamen bat aurkeztu behar dutela, eta ondoren, bere edukia irakurri du.

#### EAJ-PNVren proposamena

Gipuzkoako Batzar Nagusiek, mankomunitateekin egindako eztabaida eta analisi luze baten ondorioz, Gipuzkoak sortutako hiri-hondakinen kudeaketa integrala xede hartzen duen Foru Araua onartu zuten, Gipuzkoako Hiri Hondakinen Kudeaketako Plan Integrala (PIGRUG). Hondakinen kudeaketari buruzko, Hondakinen gaineko 2008/98 CEE Zuzentarau europar hierarkizatuak, dioenaren arabera, ingurugiroa, osasuna eta pertsonen ongizatea, erabat errespetatuz.

Hau honela, Foru Arauak, 2016.urtean, sortzen ditugun hiri hondakinen gutxieneko %60a, birziklatu, berrerabili eta konpostatu, eta zikloa hiri hondakinak balioztatuz itxi behar dugula jasotzen du, hau da, berrerabili edo konpostatu ezin diren hondakin horiek, erraustuz. Asmo handiko helburua, Europako herri aurreratuenen eta ingurumen eta osasun publikoarekin, konprometituenen mailakoa.

Azken urte hauean, 2000 eta 2010 urteen artean, Gipuzkoan hiri hondakinen gaikako bilketa %17,4 izatetik %43,31 izatera pasa da (gestore pribatuen bidez era sailkatuan jasotzen dituzten enpresa handien hondakinak kontutan izanik). Datu hauek argi eta garbi adierazten dute XXI. mendean birziklatzearen aldeko apustua garbia dela baina jendea kontzientziazatuz eta heziz egin behar dela, ez

inposizio bidez eta orain artean egin dugun bideari jarraitzea dela Europan zabor kudeaketaren eredu aurreratuenek erabiltzen duten bideari jarraitzea.

Bosgarren kontenedorea jarri den herrietan, eta bere aldeko benetako apustua egin den herri horietan, gaikako bilketa % 46ra pasa da, gestore pribatuen bidez era sailkatuan jasotzen dituzten enpresa handien hondakinak kontutan izan gabe. Azken hauek kontuan hartzen baditugu, herri horietan gaikako bilketaren porzentaia %60 da.

Edukinontzien bidez hondakinen bilketak badu oraindik implementagarriak zaizkion neurri ezberdinen bidez, beste edozein sistemak lortu ditzazken emaitzak lortzeko aukera garbia. Bosgarren edukiontzitari eta errefusako edukiontzitari txipa jarritz, poltsak barra kodearen bidez pertsonalizatuz, guzti honek sortzen duen informazioari esker eraginkorragoak izango diren informazio eta sensibilizazio kanpainak ahalbideratuz eta birziklatzearen aldeko benetazko tasen hobariak onartuz.

Urte hauetan (gai honi dagokionez esaten dutenaren kontra, orain artean inoiz ez da halako apusturik egin), ezartzen joan diren neurri ezberdinei esker izan da posible: edukiontzi ezberdinak erabiliz gaikako bilketa eginez, garbiguneak, konpost plantak, ontziak bereizteko plantak, transferentzia-estazioak eraikiz, prebentzio, kontzientziazio kanpainak eginez, eta abar...

Guk defendatzen dugun sistema hurrengo printzipioetan oinarritzen da: eraginkortasunean, proportzionaltasunean eta arrazionaltasun ekonomikoan. Beraz, hau da gure apostua, pertsonen konfidantzan oinarrituko den sistema bat, eraginkorra izango dena, garbia izango dena, estetikoa izango dena eta ekonomikoki bideragarria izango dena.

Guzti hori dela eta, udalbatza honi hurrengo hau onar dezan proposatzen diogu:

- 1.- Ordiziako udalak, Ordiziako herritarrei, birziklapenaren aldeko apustua egiteko eskatzen diete.
- 2.- Ordiziako udalak, zaboren gestio integralaren katea, prebentzioa, birziklapena eta konpostea eta balorizazio energetikoa dela berresten du, Europear zuzentarauak esaten dutenaren ildotik.
- 3.- Ordiziako udalak, materia organikoa jasotzeko, 5. Edukiontzia-aren aldeko apustu garbia egiten du eta aipatu diren neurriak implementatuz.

### Santamaria jn

Jarraitu du esanez errealitateak ez duela zerikusirik Bilduk aipatzen dituen datuekin, eta orain arte zabor bilketari buruz eman diren pausoak ikuspuntu integral baten oinarrituta eman direla, eta ez inondik inora ikuspuntu partzial batetik.

Ekainaren 25ean Carlos Ormazabal eta Denis Itxasok Ordizian eman zuten hitzaldia ere aipatu du, jarraitu du esanez oso garbi dagoela orain arte gauzak oso ondo egin direla, ez dela nahastu behar gaikako bilketa atez-ateko bilketarekin, eta inposaketaren bidez ez direla gauzak konpontzen, pertsonen konfiantzan, kontzientziazioan eta heziketan oinarritutako sistemak erabili behar direla.

Bestalde, gaur egun indarrean dagoen arautegia defendatu du (era honetan azpimarratu du hartutako erabaki guztiak urte askotan izandako eztabaiden ondorioz hartutakoak direla eta gaia ondo zuzenduta zegoela) eta horregatik ondorengo hausnarketa hau egin du: bideratuta dagoen gaia eta gaindituta

zegoena zergatik zalantzan jartzen da, era honetan "PIGRUG" delako plana goraiatu du, jarraitu du esanez eredu bezala gai honetan aurreratugo dihoazen nazioak hartu behar direla (adibide bezala Alemania jartzen du), eta bizilagunen iritzia kontuan eduki behar dela, eta zentzu horretan bukatu du esanez udaletxean aurkeztutako 2.667 sinadurak atez-ateko sistemaren aurka daudela, eta azken finean arazo hau 5en edukinekin konpontzea eskatzen dutela.

### Dubreuil in

lñakik hartu du hitza, eta adierazi du beste mozio bat aurkeztu behar ez badu ere, bere iritzia manifestu baten bitartez azaldu nahi duela eta prestatu duen manifestua irakurri du:

### Manifestua

#### **Ordiziarrek ondo egiten ari gara, eta hobeto egingo dugu**

*Hondakinen kudeaketa ereduaren inguruko arazoa Gipuzkoan kinka larrian dago, Bilduren inprobisazio eta planifikazio faltagatik. Erakundearen artean sortutako eztabaida piztu da berriz. Oso era gordinean berrekin zaio. Gizarte eztabaida erradikalizatu egin da, eta herritarren gehiengoa "atez atekoaren" aurka dagoela nabarmen uzten du. Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko Plan Integralarekin (PIGRUG) bide argia hartu zuela zirudiena, norabidearekin, adostasun handiarekin, ondo planifikatuta eta finantzatuta, orain zalantza, argitasun gutxi, inprobisazioa eta gatazka sozial, politiko eta erakunde artekoa bilakatu da.*

*Horregatik guztiagatik, ordiziarren aurrean honako hau adierazi nahi dugu:*

- 1. Hondakinen kudeaketaren arazoaren inguruko konponbideak herritarren osasuna izan behar du kontuan gauza guztien gainetik, horrekin beste kontu batzuk ahaztu gabe, hala nola, ingurumena, ekonomia, malgutasuna, erosotasuna, lanpostuak, etab. Azpimarratu nahi dugu hondakinen kudeaketaren ideia zenbait balio kontuan izanik landu behar dela, hala nola, osasun, ingurumen balioak, balio ekonomikoak eta baita aurrerapen teknologikoen eta prozesuen aurrerapenen ikuspegitik ere.*
- 2. Zaborteak gainditzeko gure konpromisoa publiko egin nahi dugu, zenbait legek eta zuzentzauek biltzen eta behartzen gaituzten moduan, bai Europa mailan, bai Estatu mailan eta baita Euskal Autonomia Erkidegoaren mailan ere.*
- 3. Hondakinen kudeaketa iraunkorra aldarrikatzen dugu, Osoko Kudeaketa Sistemaren diseinuan oinarritutakoa, aukeren hierarkia malgutasunez aplikatuz. Bertan prebentzioa da lehentasuneko helburua, eta horrekin batera daude, berrerabilpena, birziklapena - konposta barne-, energiaren aprobetxamendua eta errefusa botatzea.*
- 4. Gure ikuspegitik, beraz, eraginkortasunez konbinatu behar dira murrizketa, gaikako biltzea, berrerabilpena, birziklapena eta konposta, eta ziklo hau amaitu beharra dago bat etorritik indarrean dagoen legediarekin, Europar Batasunaren esperientzia eta orientabideekin eta hondakinen kudeaketa gaietan herrialderik aurreratuenekin. Horrek azpiegitura egokiak eta nahikoak eskatzen ditu, PIGRUGen bildutakoak.*

*Zentzu horretan, Europar Batasunaren gomendioekin eta orientabideekin bat datozen bilketa tasen aldeko sistemen alde egiten dugu. Arrazoizko materia organikoaren bilketa tasarekin, arrazoizko erosotasun parametroekin eta arrazoizko malgutasun, egokitzapen eta hobekuntza parametroekin.*

*Ordiziarrok arazo bat dugu zaborrarekin, baina baita alternatiba bat ere. Ordizia garbia nahi dugu. Horregatik, eta Ordizian ondo egiten ari garelako, alor honetan herrialderik aurreratuenek egiten duten moduan egin nahi diogu aurre arazoari.*

*Orain arte, urtez urte zabor bilketaren sistemak hobetzeaz kezkatu izan gara. Askotan, edukinontzien sistema urtez urte zabaltzen, hobetzen eta konpontzen aritu gara, egunero gure kaleak garbitzeaz arduratu gara, gure etxeetako eta eraikin nagusietako fatxadak garbi mantentzeko lan egin dugu, gure azoketan, zabor bilketari dagokionez, hobekuntzak lortzeko sistemak abiarazi ditugu, gaikako bilketari dagokionez, alor guztietan egin dugu aurrera. Hori denek dakite. Eta hori egin dugu, beti nahi izan dugulako Ordizia garbia. Horregatik egin nahi ditugu gauzak hobeto. Horregatik onartu genuen 5. edukinontzia. Horregatik, Ordiziari eskualde mailako garbigunea emateko egiten dugu lan, eta udalerrian birziklapenaren aldeko sentsibilizazio kanpainak garatzeko, edo egunez egun gaikako bilketa hobetzeko...*

*Horiek horrela, PSE-EE (PSOE)-k:*

- 1.- Udalaren aldetik azterketa bat egitea proposatuko du, gure udal eremuan hondakinen sorkuntza murrizteko.*
- 2.- Ordiziako familien artean konposta biltzea sustatzera eta aldeztara bideratutako ekimenak babestuko ditu.*
- 3.- Hobekuntza prozesuak zabaltzeko eta udalerrian 5. edukinontziaren erabilera zabaltzeko aldizkako kanpainetarako behar diren ekimenak lagunduko ditu.*
- 4.- Udal lan-talde bat osatzea proposatuko dugu, aipatutako konpromisoak lortzeko herritarren parte-hartzea kontuan izango duena.*

*Hori guztia, ordiziarrek ondo egiten ari garela eta hobeto egin dezakegula sinetsita, sentsibilizazioaren, kontzientziazioaren eta hezkuntzaren bitartez. Pixkanaka. Pausoz pauso, baina etenik gabe.*

Bere manifestua irakurri ondoren, asteleheneko hitzaldiari erreferentzia eginez, esan du orain arte zaborraren kudeaketa "ondo" egiten ari zirela, edukinontzien sistema hobetzen joan dela urtez-urte, hondakinen bilketarako berrerabilpena, birziklatzea eta konpostatzea hartu behar direla helburutzat, eta hori dena "PIGRUG" planarekin gaia ondo bideratuta zegoela, eta BILDUren proposamenarekin berriro zalantzak, nahasmena, inprobisazioa, erakundeen arteko konfrontazioa nagusitzen direla.



Bestalde adierazi du eztabaida momento kritikoan dagoela, eta konponbideak osasuna izan behar duela kontuan, beste aspektu batzuk ahaztu gabe: ingurumenari eragina, aurrerapen teknologikoak, eta abar.

Bukatu du bere interbentzioa batzorde bat osatzeko eskatuz, batzorde horretan gai hau sakon aztertu eta soluzioak denen artean adosteko, beti ere egoera hobetzen joateko helburuarekin.

### Alkate jn

“Oso ondo egin dira gauzak” edo “birziklatze alde lana oso ondo egin da” egindako adierazpenen aurrean (batez ere astelehenean egindako bileran) bere harridura azaldu du.

Gai hau politiko esparrura eraman nahi dela salatu du, eta abian jarri nahi den atez-ateko zabor bilketa zerbitzuaren aurka kanpaina mediatiko bat jarri dela martxan, eta horrekin “errauskailu”gaia tapatu nahi dutela.

Jarraitu du esanez zaborraren arazoa soluzionatzeko bi bide daudela: bata atez-atekoa eta bestea “errauskailua”. Josemik aurkeztutako kontramozioari dagokionez, aldez aurretik pasa ez izana kritikatu dio eta “plana ondo zihuan” esan duenean ahaztu zaiola arazoa politika arlorra pasatu dela esatea (Alduntziren aurka jarritako zentsura mozioa gogorarazi dio) eta baita ahaztu zaiola esatea “errauskailua”ren inguruan dauden hainbat puntu ilun (Gipuzkoako lekua txarrenen eta garestienen artean kokatu nahi zen), eta horren atzean Alderdi Sozialistarekin adostutako akordioa besterik ez dagoela. Bukatu du esanez, atez-ateko sistemaren aurka aurkeztutako 2.667 sinadurei emango zaiela duten garrantzia, eta hauek bideratuko direla Sasieta Mankomunitatera “organiko” erako bilketa egiteko giltza eta kubotxoaren bitartez gonbidapena pasatzeko. Azkenik gogarazi ditu Markel Olanok 2007. urtean esandako hitzak “Gipuzkoako Foru Aldundiak Mankomunitateen erabakiak errespetatuko ditu”, eta bukatu du esanez Bildu etorri denetik saiatzen ari dela ereduaren aldaketa aplikatzen Gipuzkoa hobe bat lortzeko, horretako eskura dituen tresnak erabilia.

### Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 7 (BILDU 7,)

Kontrako botoak: 6 (EAJ/PNV 5,PSE-EE (PSOE)1)

Abstentzioa: 0.

**Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.**



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendako 3. puntuaren berri eman du:

### **3.- EAJ/PNV taldeak eskualdeko enplegu planaren inguruan aurkeztutako mozioa.**

#### Proposamena

Azken urteetan, Euskal Herria, inguruko beste herrialde batzuk bezala, krisi ekonomiko eta finantzario larri batean murgilduta dago. Gure eskualdea, Euskal Herriko eta estatuko beste zonalde batzuk baino hobeto ari da krisi egoera hau pairatzen. Egoera hobea honen arrazoiak bat aurreko krisialdian eskualdeko erakundeetatik (Goieki garapen agentzia eta Goierriko Herriek Ekintza Fundaziotik) egin zen lanari esker dela uste dugu. Erakunde publiko eta enpresa pribatuen arteko elkarlana izan da gure eskualdearen bereizgarri nabarmenetako bat eta orain arte izan dugun egoera ekonomiko eta sozial orekatua lortzeko zutabetako bat.

Egoera ez da erraza, geroz eta langabetu gehiago ditugu gure herrietan eta pertsona horiengan pentsatu beharra daukagu. Denon esfortzua behar da etorkizunari aurre egiteko.

Momentu honek, EAJ-PNVren ustetan, eragile guztien lana eta, are gehiago, elkarlana eskatzen du. Elkarlan hori gauzatzeko gure erakundeen parte-hartzea ezinbestekoa da. Udalek eta eragile ekonomiko eta sozialek beraien eskuetan dituzten baliabide guztiak erabili behar dituzte.

2012ko maiatzaren 23ko datuz, Eusko Jaurlaritzak diru-laguntzak atera ditu eskualde ikuspegitik enplegu plangintzak egiteko. Badirudi enplegu plangintza horiek gauzatzeko 14.000.000,00.-€ inguru bideratuko dituela datozen hilabeteetan. Baina horietara aurkezteko plangintza eginda eduki behar da alde aurretik. Eta eskualdeko herri bakoitzak hartu behar du plangintza horretan egoteko erabakia.

Horrelako aukerarik ezin dugu alde batera utzi. Gure eskualdean ditugun lanpostuei eutsi beharrean gaude eta, ahal dela, berriak sortu gainera.

#### MOZIOA

Hori horrela, Ordiziako EAJ-PNVk zera eskatzen du:

- 1.- Udalak, gai honi duen garrantzia emanez, udalgintzako plangintzetan lehentasuna eman diezaiola.
- 2.- Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailak Eskualdeko enplegu Planak sustatzeko atera berri duen plangintzan ORIDIZIAKO udalak parte hartu dezala, eskualdeko erakunde eta beste udalekin elkarlanean.
- 3.- EAJk udalari eta eskualdeko erakundeei egiten dien lankidetzak eskaintza aintzat har dezala. EAJk duen esperientzia eta lanerako borondatea egoera zail honetan ere eskualdeko eragileen dispozitoria jartzen du.

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: Soila.

## Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

### Alkate jn.

Adierazi du nahiz eta orokorrean ados egon mozioaren edukiarekin, 2012ko ekainaren 20an egin zen Osoko Bilkurako Gai Batzordean luze eztabaidatu zela gai hau eta kontsentsoa lortzeko nahia ere agertu zela, baina ez dela ezer egin, aparte gai honi buruz beste hausnarketa batzuk ere egin ditu:

- Eskualde honetan egoera hobea bada, hemengo langileriak egin duen lanari esker ere izan daiteke.
- Arlo honetan gauza asko daude egiteko, eta ahalik eta kontsentso gehien edukitzea oso garrantzitsua da.

Jarraitu du esanez horrelako enplegu plangintzetan parte hartu egin behar dela, eta enplegu plana tresna garrantzitsua bada ere, lanak lasaiago egin behar direla, behar bezala planifikatuz, eta ez inolaz ere korrika eta presaka.

Azpimarratu du hauteskunde atarian gaudenez, eskualdeka banaketa egiteko garaian PSOE alderdiaren kanpaina egiteko estrategian ere kokatu daitekeela, eta berriro errepikatu du hemengo egoera hobea bada, baita dela hemen langileriak egin duen lanarengatik, eta horrek bere errekonozimendua ere merezi zuela.

Bestalde PNV, PSE eta herriko eragileekin batera gai honi buruzko kontsentso bat lortzeko prest agertu da, eta bukatu du esanez dirulaguntza eskaerak bideratuko direla, eta gogoratu du dagoeneko GOIEKIn aztertzen ari direla nola bideratu dirulaguntza eskaerak, eta zirriborroa egina dutela, Udal guztietara pasatzeko konpromezua hartuz.

### Dubreuil jn

Bere aldetik, nahiz eta aspektu batzuetan desadostasun batzuk eduki, mozioaren alde bozkatuko duela azaldu du, eta gaineratu du hau ez zela aurkeztu beharrik izango, berak bilera batean (dagoen aktan jasota dago) aurkeztu zuen proposamenari kasu egin balizaio; herritik programaren jarraipen zuzena egiteko lan talde bat osatzeko proposamena egin du, eta bukatzeko beste bilera batzuetan adierazitakoaren arabera berriro aurreko legealdian sortutako krisiaren aurkako batzordea martxan jartzea eskatu du.

## Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 6 (EAJ/PNV 5, PSE-EE (PSOE) 1)

Kontrako botoak: 7 (BILDU 7)

Abstentzioa: 0

**Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena ez onartutzat eman du.**



Jarraian, Alkateak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

**4.- 2011ko kontu orokorrak onartzea.**

Proposamena

Kontuen Batzorde Bereziak, 2012ko maiatzaren 31an egindako bilkuran, aldeko irizpena eman zion 2011ko Aurrekontuaren Kontu Orokorrari.

Aldeko txostena jendaurrean egon da ikusgai, 2012ko ekainaren 5eko GAOko 106.alean, eta ez da inolako erreklamaziorik edo iradokizunik jaso; beraz, aipatu iragarkian esaten den bezala, hasierako txosten hori behin betiko bihurtuko da.

Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 63.4. artikuluan dagoena aplikatuta, honako hau onartzeko proposamena egin zaio Udalbatzari.

AKORDIO PROIEKTUA.

**2011ko Aurrekontuaren Kontu Orokorra onartu.**

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: Soila.

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Kontuhartzaile jn.

Kontu Orokorra osatzeko behar diren dokumentuak zerrendatu ditu.

Adierazi du Kontu Orokorra 2012-05-31ko Kontu Batzorde Berezian aztertu zela, eta diktamena jendaurreko epealdian jarri eta ez dela inongo erreklamaziorik izan.

Bestalde adierazi du galera eta irabazi kontuak jasotzen duen emaitza benetakoa baino altuagoa dela, zeren eta kapital transferentziak zuzenean emaitzei aplikatzen zaizkie., eta enpresa pribatuetan hau alderantziz egiten dela, aplikazio hau egindako inbertsioen amortazioari akonpasatzen baitzaie.

Zentzu horretan, adierazi du Udalaren egoeraren informazio garbiena aurrekontu kontabilitateak ematen duela, nahiz eta Ondasun Kontabilitatean datu batzuk egon, zorra eta diruzaintza hain zuzen ere, Aurrekontu kontabilitatean agertzen ez direnak. Honi buruz adierazi du 2011-12-31ko datara zorra

3.077.438,79 eurokoa zela, %4,12ko zorpetze maila, eta datu hori gure antzeko Udalen batz-besteko zorpetze maila baina gutxiago dela (%5,5a), eta Gipuzkoako batz-besteko, zorpetze maila baina gutxiago ere (%6,2<sup>a</sup>).

2012ko aurrekontuaren prestaketari begira, aurreikusten den arazo garrantzitsuena nola kuadratu izango da.

Behin eta Udal Osoko Bilkurak espediente hau onartu, Kontu Epaitegira bidaliko da Euskadiko beste Udalekin egiten duen bezala fiskalizazio txostena egiteko.

### Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 13 (BILDU 7, PSE-EE (PSOE)1, EAJ/PNV 5)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 0

**Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.**



Jarraian, Alkateak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

### **5.- Alkatetza Dekretu bidez onartutako kreditu aldaketen berri ematea**

Abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 27.3 artikulua, Gipuzkoako Tokiko Erakundeen Aurrekontua ematen duenak ezartzen du Osoko Bilkurari jakinarazi behar zaizkiola Aurrekontuan ematen diren aldaketak.

Hauek dira 2012an onartu diren aldaketak:

Kreditua txertatzea

Zenbak	Dekretu zenb.	Zenbatekoa
1	365	841.570,41.-

Kreditu transferentziak

Zenbak	Dekretu zenb.	Zenbatekoa
1	475	5.000,00.-

Kreditu gehigarriak

Zenbak	Dekretu zenb.	Zenbatekoa
--------	---------------	------------

1	270	50.000,00.-
2	Pleno 28-3-2012	57.851,83.-
3	497	34.310,00.-

Kredituak gaitzea

Zenbak	Dekretu zenb.	Zenbatekoa
1	455	644,00
2	542	345.888,12
3	546	5.960,00

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Kontuhartzaile jn

Puntu honen berri eman du.

**Udalbatza Plenoa jakinaren gainean geratu da.**



Jarraian, Alkateak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

**6.- Kreditu transferentzien expedientea.**

Proposamena

Zerbitzu Delegazioak, 2012-6-1eko bileran, zuhaitzak landatzeko borondatea aurrera eraman nahian, aurrekontuan krediturik ez zegoenez, proposatu zuen 0-100 parkerako ezarrita dagoen kopuruaren zati bat erabiltzea.

Proposamen honek suposatzen du bi funtzio desberdineko partiden artean kreditua mugitzea eta Aurrekontua exekutatzeko oinarrietako 3.ak aldaketa hori Udalbatzaren eskuetan uzten du.

AKORDIO PROPOSAMENA

**Ondoko kreditu transferentzia onartzea:**

PARTIDA	KREDITU IGOERAK IZENA	KOPURUA
601.511.00.01	Zuhaitzen landaketa	10.000,00
	GUZTIRA	10.000,00

PARTIDA	KREDITU MURRIZKETAK IZENA	KOPURUA
623.434.11.02	0-100 parkea GUZTIRA	10.000,00 10.000,00

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: Soila.

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Kontuhartzaile jn

Onarpenerako aurkeztutako kreditu-transferentzien espedienteari buruzko informazioa aurkeztu du.

Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 7(BILDU 7)

Kontrako botoak: 5(EAJ/PNV 5)

Abstentzia: 1 (PSE-EE (PSOE) 1)

**Beraz Alkateak aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.**



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendako 7. puntuaren berri eman du:

**7.- Egoera ekonomiko eta finantzarioaren berri ematea**

Proposamena

21/2003 Foru Arauak ezartzen duenez, gutxienez hiru hilean behin Alkateak Plenoari informazio finantzario eta aurrekontuaren gainekoa eman behar dio.

2012-6-20ko Osoko Bilkurako Gaien batzordean aztertu da gaia.

EMANDAKO INFORMAZIOA HAUXE IZAN DA:

- **Funtziokako balantzea.**
- **Sarreraren Aurrekontuaren gauzatzea.**
- **Aurrekontu-krediturik gabe egindako gastuak.**

▪ **Udal Diruzaintzaren egoera.**

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Kontuhartzaile jn.

Adierazi du Legean xedatutakoaren arabera informazio hau hiru hilabetean behin eman behar zaiola Udal Osoko Bilkurari.

2006-03-30eko Udal Osoko Bikuran aurkeztu beharreko dokumentazioa onartu zen.

Aitortzen du epe luze batean informazio hau ez dela eman, eta izandako lan pilaketa dela eta, bera izan dela horren arduradun.

Honako dokumentazio hau banatu da:

- Funtziokako balantzea
- Sarrereren aurrekontuaren gauzatzea.
- Aurrekontu-krediturik gabe egindako gastuak
- Udal diruzaintzaren egoera..

Funtziokako balantzeak aurrekontuaren exekuzioa area desberdinen arabera jasotzen du eta zuzen exekutatzen ari da.

Aurreikusitako dirusarrerak ere ondo likidatzen ari dira.

Aurrekontuko krediturik gabe 3 gastu egin dira, baina kopuru gutxikoak dira.

Udal diruzaintzan 2.262.388,66 euro daude, eta kopuru horretan batetik pobreziari aurre egiteko herentzi baten bitartez jasotako 120.000,00 euro dadue eta bestetik kutxari bere egunean itzuli beharko zaion metalikoz jarritako 247.119,04 euroko fidantza bat dago.

Hurrengo hiru hilabeteetarako dirusarrera eta gastuen aurreikuspenaren arabera, ez da espero inongo arazorik likidazioari dagokionez, eta urtea ere ondo amaituko litzateke, nahiz eta aurreiskupena okerrera egitea den.

**Udalbatza Plenoa jakinaren gainean geratu da.**



Jarraian, Alkateak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:



## **8.- Obra handien eta obra txikien delegazioak bateratzea.**

### **577.DEKRETUA**

#### **HONAKO HAU IKUSITA:**

- 649 zenbakidun Alkatetzaren dekretua, 2011ko ekainaren 28ko data duena, besteak beste, sailtako ordezkari hauek izendatzen zituena:

- Hirigintza eta Obra Handietako delegazioa: Igor Eguren Izagirre jauna.
- Zerbitzu eta Obra txikietako delegazioa: Iban Asenjo Garde jauna

-Toki Erakundeen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Erregimen Juridikoaren Arautegi azaroaren 28ko 2568/86 Errege-dekretuko 43.5 b) atalek ematen didaten aginpideak.

#### **HONAKO HAU ERABAKI DUT:**

\* **Lehenengoa:** Honako Delegazio hauen eskumen eta izendapenak aldatzea:

- Hirigintza eta Obra Handietako delegazioaren ordezkari, OBRAK ETA HIRIGINTZA DELEGAZIOA.
- Zerbitzu eta Obra Txikiak delegazioaren ordezkari, ZERBITZU DELEGAZIOA

\* **Bigarrena:** Aipatu zinegotzietatik dekretu hau jakinaraztea, udalbatzarrari egingo duen lehendabiziko osoko bilkuran honako dekretu honen berri ematea eta laburpena Lurraldeko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

\* **Hirugarrena:** Dekretu hau Alkatetzaren dekretu-liburuan kopia behar da hitzez hitz, eta behean ageri den dataren hurrengo egunean sartuko da indarrean.

**Plenoa jakinaren gainean geratu da.**



Jarraian, Alkateak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

## **9.- Alkatetzaren Dekretua baliozkotzea Aita Urdaneta 10ean alokairuko etxebizitzak esleitzeko prozeduran.**

### Proposamena

Aita Urdaneta,10 Auzoan bi etxebizitzan jabetza duen Ordiziako Udalak errentamenduan esleitzeko interesa ikusita, babes ofizialeko etxebizitzak alokatzeko irizpideetan oinarrituta, esleitzeko prozedura abiatu zen 2012ko ekainaren 6ko 545. zkiko Alkatetzaren ebazpena bidez, Idazkariaren bezperako datan egindako txostenaren arabera.

Esleitzeko prozedura abiatu da, GAOn iragarkia argitaratu da, iragarki tauletan, baita zabaldu da eskaerak aurkezteko epea ere.

2012ko ekainaren 13an Idazkariak txosten berria aurkezten du, Osoko Bilkurari dagokio etxebizitzak esleitzeko prozeduraren onarpena, ondorioz, egintza Osoko Bilkurak gehiengo arruntaz baliozkotu beharko du, eta horrela prozedura salbu geratzen da. Hau dena Prozedura Administratibo Orokorra arautzen duen 30/1992 legearen 67.3 eta 63 artikuluek xedatutakoaren arabera

Osoko Bilkurak honako hau gehiengo arruntaz onartzeko proposatzen da:

### AKORDIO PROIEKTUA

**.- Udal Osoko Bilkurak 2012ko Alkatearen 545. zkiko ebazpena baliozkotzeko eta ekainaren 6ko zuen datatik aurrera, gehiengo arruntaz onartzea, eta horrela prozedura salbu geratzen da zuen ondorioekin.**

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: Soila.

### Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

#### Alkate jn.

Adierazi du espedientea dagoeneko bideratzen ari dela, eta erabakia Alkatetzaren Dekretuaren bitartez hasi zela, eta horrelako erabakia hartzeko ahalmena Udal Osoko Bilkurari dagokionez, espedientea baliozkotzea proposatzen dela hasitako esleipen-prozedurarekin jarrai ahal izateko.

### Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 13 (BILDU 7, PSE-EE (PSOE)1, EAJ/PNV 5)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 0

**Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena onartu du.**



Jarraian, Alkateak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

**10.- Eskaerak eta galderak**

Ez dago.



Gai gehiago ez dagoenez, Alkateak Osoko Bilkura amaitutzat eman du, eta batzordearen akta idatzi da, eta nik, idazkariak egiaztatzen dut.